



EBAZPENA, 2022ko otsailaren 14koa Hezkuntza saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariarena. Horren bidez zehazten dira Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Hezkuntza Bereziko eta Helduen Hezkuntzako ikastetxe publikoetan, bai eta Irakaskuntza Ertainetako ikastetxe publikoetako zereginak ikasteko geletan ere, hutsik dauden Maisu-maistren kidegoko behin-behineko lanpostuak.

Hezkuntza sailburuaren 2021eko azaroaren 5eko aginduak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren menpeko ikastetxeetan lanpostuak betetzeko unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza-kidegoetako funtzionarioen artean estatu mailako lekualdatze-lehiaketa deitzen duenak, hogeita laugarren oinarrian xedatutakoaren arabera (EHAA 2021eko azaroaren 12a),

Ondorioz, hau

XEDATU DUT:

Lehen artikulua.- Argitara ematea Ebazpen honen I. eranskinean Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Hezkuntza Bereziko ikastetxe publikoetan hutsik dauden behin-behineko lanpostuak, Maisu-maistren kidegoko irakasle funtzionarioen arteko lekualdatze-lehiaketarako deialdiaren bidez betetzeko.

Bigarren artikulua.- Argitara ematea Ebazpen honen II. Eranskinean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoetan eta Irakaskuntza Ertainetako ikastetxe publikoetako zereginak ikasteko geletako ikastetxeetan hutsik dauden behin-behineko lanpostuak, Maisu-maistren kidegoko irakasle funtzionarioen arteko lekualdatze-lehiaketarako deialdiaren bidez betetzeko.

Hirugarren artikulua.- Argitara ematea Ebazpen honen III. Helduen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako zereginak ikasteko geletako ikastetxeetan hutsik dauden behin-behineko lanpostuak, Maisu-maistren kidegoko irakasle funtzionarioen arteko lekualdatze-lehiaketarako deialdiaren bidez betetzeko

Laugarren artikulua.- Interesatuak erreklamazioa aurkeztu ahal izango dute behin-behineko lanpostu hutsen zerrenda horren kontra, 5 laneguneko epean, Hezkuntza sailaren web orrian argitara eman eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

**BLANCA MARIA GUERRERO OCEJO
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA**

Vitoria-Gasteiz, 2022ko otsailaren 14a